



SOLDATAK ETA GENERO-INDARKERIA

Ustiapen ekonomikoaren eta emakume langileen aurkako indarkeriaren arteko loturak esploratu ditugu.

2020ko urria

FASHION
CHECKER 

Campaña
Ropa Limpia 

Clean Clothes
Campaign

AURKIBIDEA

Genero-indarkeria da ustiapen ekonomikoaren kausa eta ondorioa³

Nola laguntzen diote indarkeriari marken eta txikizkarien erosketa-jardunbideek⁴

Esplotazioa indarkeria ekonomikoko modu bat da⁵

Generoa eta Covid-19: emakume langileek ordaindu dute krisiaren prezioa⁶

Gomendioak⁶

Markentzat eta txikizkariarentzat⁶

Legegilarientzat⁸

Fabriketako arduradunentzat⁸

Bibliografia⁹

Egilea: Sina Marx | FEMNET Elkarte



Arropa Garbia Kanpainaren txostena da hau eta Bangladeshko Langileenganako Elkartasun Zentroak (BCWS, ingelesezko siglak) eta FEMNET Elkarteak 2019an eginiko ikerketan eta Arropa Garbia Kanpainaren 2019ko eta 2020ko Fashion Checker testuinguruan oinarritzen da.

Euskarara itzuli du (2023an): Ixai Urraza Gómez.

Portadako irudia: © Sina Marx | FEMNET, Dacca 2019.



Europako Batasunaren laguntza ekonomikoarekin egin da argitalpen hau. Arropa Garbia Kanpaina da edukiaren erantzule bakarra, eta ez du berariaz islatzen Europako Batasunaren iritzia.

Txosten honen itzulpena eta maketazioa SETEMen eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (GNLEA) arteko proiektuaren testuinguruan egin da.



«Indarkeriaren eta mehatxuen bidez isilarazten gaituzte langileoi. Fabriketan sexu-jazarpena jasaten dugu gure buruzagien aldetik, eta, aurre egiten badiegu, mehatxu egin edo kaleratzen gaituzte. Horregatik, oso pertsona gutxi ausartzen dira beren esperientziak kontatzen».

— Kalpona Akter, lan-eskubideen aldeko aktibista | BCWS (Banglades)

Mundu osoko emakumeek indarkeria jasaten dute lanean, beren jatorria, diru-sarreraren maila edo jarduera-sektorea edo zer dela ere. Hala ere, genero-indarkeria eta -jazarpena maiztasun handiagoz gertatzen dira emakumeek betetzen dituzten lanpostuek ordainsari urriak dituzten industrietan, non, erabakiak hartzerakoan, emakumeek ahotsik ez duten. Hala, sarritan mendekotasun-harremanak dituzte beren buruzagiekin, gizonak izan ohi direnekin. Hornidura-kateen sistema dela medio, ehungintzaren industriak emakume langileen aurkako indarkeria eta jazarpena sustatzen ditu egituraz, beste sektore batzuen artean. Eskulan gehiena emakumeek osatzen dute, besteak beste, neska gazteek eta langile migratzaileek. Gutxi kobratzen dute, asko eskatzen zaie eta, askotan, ez dute antolakuntzarik osatzen beren ordezkariak diren elkarteetan, enplegatu gisa, ez eta emakume gisa ere. Oso emakume gutxi eman dute izena sindikatuan, eta gizonak izan ohi dira sindikatuen buruak. Egoera horretan, emakume langileek ez dute ordezkaritza nahikorik, beren interesen alde jotzeko erakunde arduradunetan ere ez.

Genero-indarkeria da ustiapen ekonomikoaren kausa eta ondorioa

Berez arazotsua den egoera larriagotzen du fabriketako botere-desoreka iraunkorrak. Emakumeek lan-baldintza prekarioetan lan egin ohi dute, ekoiztiko ale bakoitzeko kobratzen dute edo ez dute kontraturik. Gainera, epe laburrerako kontratuak ez dira berritzen, arduradunen aburuz, langileek ezer «desegokirik» egin dutenean, esaterako, beren lan-eskubideak aldarrikatu edo haurdu geratu. Mendekotasun-egoera horien ondorioz, langileek oso gutxitan kontatzen dituzte beren indarkeria-esperientziak.

Zaila da kexa ematea zure buruzagiaren aldetik lan-jazarpena jasaten baduzu, aurka eginez gero kaleratuko zaituztela beldur bazara edo zure seme-alabek bizirauteko soldata txiki baten mendeko bazara.

Kalkuluen arabera, salatu gabeko indarkeria- eta jazarpen-kasu ugari daude fabriketan. Hain dira ugari, non, legea egon arren, ez enpresek, ez gobernuek ez eta herritarrek ere arazoa konpontzeko interesik ez duten.

Aipatutako tabua hausteko xedez, azken urteetan zehar lan-eskubideen eta emakumeen eskubideen aldeko erakundeek elkarrekin lan egin dute zenbait ekimenetan, gaiari buruzko datu eta informazio zehatzak emateko. 2020an, Bangladeshko Langileenganako Elkartasun Zentroak (BCWS, ingelesezko siglak) eta FEMNET Elkarteak argitara eman zituzten Bangladeshko fabriketan eginiko azterketa sakon¹ baten emaitzak. Azterketaren arabera, kezagarria da jazarpen- eta indarkeria-maila. 600 langile baino gehiago elkarrizketatu ziren (642 guztira, 484 emakume eta 158 gizon) eta, horien % 75ek adierazi zuten, genero-indarkeria bizitzen dute sarri fabriketan. Horietatik, % 75 dira sexu-jazarpenaren biktimak. Biktimek ez dute norengana jo, eta kasuei ia ez zaie heltzen. Azterketak berresten duenez, halaber, aurrez eginiko aurkikuntzen arabera, emakume langile batek nekez hitz egingo luke enpresak bidalitako kanpo-ikertzaile batekin lantokian gertatutako sexu-abusuei buruz. Zoritzarrez, faktore nagusi horrek galarazten du arazoa fabriketako auditorietan agertzea.

Nola laguntzen diote indarkeriari marken eta txikizkarien erosketa-jardunbideek

Ehun-fabriketako indarkeriaren beste kausa nagusi bat da *fast fashion* delakoak eta modako markak merkaturatzen dituzten enpresek modu konpultsiboan erosteak sortzen duten presioa. Elkarrizketatutako emakume langileen % 64ek adierazi dutenez, ekoizpen-presio handia dute, eta heren batek beren buruzagien mehatxuak edo kolpeak jaso dituzte ekoizpen-presioa dela medio.

Gainbegiraleek eta zuzendariak mehatxu egin ohi dute hobariak kentzearekin edo atxikitzearekin, zenbait helburura iristen ez badira. Aurreko ikerketen² emaitzak berresten ditu horrek, eta agerian uzten du nazioarteko marken enpresen erosketa-jardunbideek zuzenean bultzatzen dituztela indarkeria eta jazarpena ehun-fabriketan. Alde batetik, produktuak hain epe laburrean entregatu beharreko presioa enpresaren hierarkian zehar jaisten doa: fabrikatik gainbegiraleei, buruzagien taldeari, eta, azkenik, langileei. Gero eta handiagoa izan gainbegiraleen presioa, orduan eta indarkeria handiagoa jasango dute langileek³. Bestalde, konpainia eroslearen prezioen gaineko presioak soldata-mailak

¹ BCWS, FEMNET (2020): «Stop the Violence - Break the Silence. Gender-based violence in the garment sector of Bangladesh: A study on cases, causes and cures [Eten dezagun indarkeria; hautsi dezagun isiltasuna. Indarkeria sexista Bangladeshko ehungintzaren sektorean: Kasuen, kausen eta sendabideen azterketa]». https://femnet.de/images/downloads/gbv/GBV_Stop-Violence_Report_BCWS-FEMNET-2020.pdf

² Cf. Fair Wear Foundation (FWF) (2018a), (2018b); Global Labor Justice eta Asia Floor Wage Alliance (GLJ, AFWA) (2019).

³ Anner, Mark (2019): Erosketa-jardun harrapatzaileak jantzigintzaren industriaren munduko hornidura-kateetan: urduritasuna Indiako lan-harremantetan. *Revista internacional del Trabajo* 138(4), 761-787.

txikitzen ditu modu sistematikoan eta langileen egiturazko mendekotasun ekonomikoa handitzen du. Ondorioz, beste indarkeria mota batzuk suspertzen dira eta kaltetuek zailtasunak dituzte beren burua defendatzeko indarkeriazko egoeretan edo egoera horietatik irteteko.

«Bangladeshko emakumeek ez dute barbarik egiten indarkeriaz edo jazarpenaz, tema tabuak dira. Horregatik daude indarkeriazko hainbeste eraso erregistratu gabe, lantokian ere bai. Fabriketan irainak eta sexu-jazarpena hain arruntak direnez, langileek eta zuzendariek ez dituzte arazotzat jotzen».

— Kalpona Akter, lan-eskubideen aldeko aktibista | BCWS (Banglades)

Esplotazioa indarkeria ekonomikoko modu bat da

Genero-indarkeriari buruzko eztabaidan ahozko abusuari edo abusu fisikoari arreta eman ohi bazaie ere, esplotazio ekonomikoa indarkeria forma arruntenetakoa eta egiturazkoa da ehun-industriaren emakume langileen aurka. Emakumeek gutxiago kobratzen dute erantzukizun berdinak dituzten lanpostuetan, gehienetan txarto ordaintzen zaie gehiegizko lana egiteagatik eta kontratutik kanpo dauden lanak onartzen dituzte kobratu gabe. Halaber, soldata ez duinen ondorioz, emakumeek pobrezia eraginei aurre egin behar diete, berariaz beren generoari eragiten diotenei. Haietako askok, aparteko orduak egitera behartuta egon ez ezik, soldatako beste lan bat behar dute hilabete amaierara iristeko (ehungintzaren sektorean lan egiten dute etxetik). Familia askotan, diru-sarrerak emakumearen soldatetik baino ez datoz, eta, halere, emakumeak direnez, etxeko lanak eta zaintza-lanak haiek bete behar dituztela espero da, soldatako lanaz gain; eta hori zama bikoitza da.

Abusu ekonomikoa pobrezia larriagotzen du, eta horrek, halaber, emakumeen hezkuntza-maila eta garatzeko aukerak mugatzen ditu, bai eta beren seme-alabenak ere. Soldata txikien eraginez, emakumeak mendekotasun ekonomikoko egoeretan daude, non, askotan, esplotazioa eta indarkeria jasan behar dituzten, eta beren seme-alabek ere bai. Hortaz, sexu-esplotazioko egoeran egoteko arriskua dute, baita haurren salerosketa edo esklabotasuna bizitzeko ere. Lan-esplotazioak malnutrizioa, gehiegi lan egitea eta nekea dakartza, eta horiek kaltegarriak dira emakumeen eta beren seme-alaben osasunerako (amen hilkortasuna barne). Fabrikek, eta modako marka erosleek modu proaktiboan heldu beharko liekete indarkeriari eta jazarpenari beren fabriketan, besteak beste, baldintza berriak betetzeko, esaterako, indarkeriari eta jazarpenari buruzko LANEren 190. Hitzarmena⁴. Horrek esan nahi du indarkeria eta jazarpena argi eta garbi zigortzen dituen politika bat egon beharra dagoela, biktimak babestu eta langileak salatzera animatzen dituen. Kasu honetan, agerian utzi behar da ehun-fabriketako indarkeriaren eta jazarpenaren kausak egiturazkoak direla, eta, hortaz, neurriak eraginkorrak izateko, egiturazko aldaketak egin behar direla. Argi geratu da hori behin baino gehiagotan gaur egungo krisiaren testuinguruan.

⁴ OIT (2019): *C190 - Indarkeriari eta jazarpenari buruzko hitzarmena, 2019 (190. alea)*

https://www.ilo.org/dyn/normlex/es/f?p=NORMLEXPUB:12100:0::NO::P12100_ILO_CODE:C190

Generoa eta Covid-19: emakume langileek ordaindu dute krisiaren prezioa

Koronabirusaren pandemia dela medio, ehungintzaren industriak galera handiak izan ditu. Eskakizunak bertan behera utzi direnez eta markek eta txikizkariak kobratu gabeko ordainketak atxiki dituztenez, fabrikak egoera ekonomiko larrietan egon dira. Langileak zuzenean ordaintzen ari dira presio ekonomiko hori: enpresak ez die soldata ordaintzen eta haietako asko kaleratzen ari da⁵. Ehunak ekoizten dituzten herrialdeetan gizarte-segurantzaren sistemak oso oinarritzakoak direnez edo ez daudenez, emakume langileen biziraupena arriskuan dago.

Instituzio publikoek⁶, gobernu kanpoko erakundeek eta langileen sindikatuek (herrialde ekoizleetan eta nazioartean⁷) esan dutenez, pandemia oso kolpe handia izan da emakumeentzat. Alde batetik, etxeko indarkeriaren kasuak asko handitu dira antzaz. Nagusiki, sexu-indarkeria berrogeialdian eta beste krisi batzuetan zehar. Hori, bereziki, arazo ekonomikoak dituzten familietan gertatzen da. Beste alde batetik, emakumeek funtsezko papera betetzen dute pandemiaren aurka aritzeko, osasun sanitario, gizarte-laguntzaile eta zaintzaile gisa. Lan horien bidez, arrisku mota ugariaren eraginpean daude egunero.

Beste behin ere, zorigaitz batek agerian utzi du ehungintzaren industriaren hauskortasuna. Hala ere, aldi berean, gaur egungo krisiak aukera bat dakar. Enpresen sektoreko eredia eraldatu behar da aspaldi: markek eta txikizkariak beren kontsumo-jardunbideak aldatzeko, giza eskubideak derrigorrez betearazten dituzten marko juridikoak ezartzeko eta ehun-fabriketako indarkeriari modu sistematikoan eta egiturazkoan heltzeko⁸.

Gomendioak

Markentzat eta txikizkariarentzat

Egin lan fabriketan genero-indarkeria eta -jazarpena desegiteko

- Har ezazue genero-indarkeriari buruzko lan-politika bat, jazarpen-batzordeak osatzea barne hartzen duena, kanpo-langile adituen eskutik eta enpresa hornitzaileen laguntzarekin, zeinak politika horiek bere egoingotuz dituzten ere bai.

⁵ Clean Clothes Campaign (2020): UN(DER)PAID IN THE PANDEMIC - An estimate of what the garment industry owes its workers [Txarto ordainduta pandemiaren zehar: Ehungintzaren industriak langileei zor dienaren estimazioa] https://www.publiceye.ch/fileadmin/doc/Mode/2020_CCC_Underpaid_in_the_pandemic_Report.pdf

⁶ Bangladesh Bureau of Statistics (BBS) (2015): Report on Violence Against Women [Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko txostena] (VAW) Survey 2015, URL: <https://evaw-global-database.unwomen.org/-/media/files/un%20women/vaw/vaw%20survey/bangladesh%20vaw%20survey%202015.pdf?vs=2125>

⁷ Patty Alleman, Laura Rumble, UNICEF, 2020-3-20: Gender equality during COVID-19 [Genero-berdintasuna Covid-19-an zehar] UN Women (2020): *El brote de COVID-19 y género: puntos clave de abogacía de Asia y el Pacífico [Covid-19 agertzea eta generoa: abokatutzaren gakoak Asian eta Ozeano Barean]*. URL: <https://gbvaor.net/sites/default/files/2020-03/COVID%2019%20y%20G%C3%A9nero%20Puntos%20de%20Incidencia.pdf>

⁸ CARE/IRC (2020): Global Rapid Gender Analysis for COVID-19 [Generoaren mundu analisi azkarra Covid-19an zehar], URL: <https://www.rescue.org/sites/default/files/document/4676/globalrgacovidrdm33120final.pdf>

- Dagozkion eginbideak dituzten protokoloak genero-ikuspegiarekin: aztertu genero-indarkeriaren arrisku-faktoreak eta hartu behar diren neurriak horiek baretzeko (jardunbide kontsumistekin eta fabriketako gainbegiratze- eta enplegu-jardunbideekin lotutako faktoreak barne).
- Eman informazioa eta prestakuntza enplegatuei eta zuzendariei kontu hauei buruz: a) genero-indarkeria eta nola azaltzen den eta b) genero-indarkeriaren arrisku hautemangarriak eta horien inguruko babes- eta prebentzio-neurriak (esaterako, haurduntzaren proba debekatzea, haurdunentzako aldi baterako kontratuak eta emakume migratzaileentzako soldata txikiak desagitea, legeak eskatutako haurtzaindegi-zerbitzua ematea prestatutako langileekin).
- Animatu emakume langileak indarkeria- eta jazarpen-egoerak salatzea ondorioz jasateko beldurrik gabe.
- Ezarri erreklamatzeko metodo ziurrak genero-indarkeriaren biktimentzat, adibidez, salaketa anonimoak eta harremanerako kanpo-pertsona independentea eta konfiantzazkoa izendatzea, emakumea dena, hau da, erreferente femenino bat.
- Lagundu genero-indarkeriaren biktimei aholkularitza juridikoarekin. Enpresa giza eskubideen aurka aritu bada, lege-kostuak ordaindu beharko ditu eta legea hausteagatik sortutako ordain ekonomikoetan parte hartu beharko du.
- Garrantzitsua da emakumeek zuzendutako sindikatuak eta aipatutako prozesu guztietan emakumeen eskubideak defendatzen dituzten erakundeak tartean egotea, gizarte-auditoriak eta neurri zuzentzaileen planak eratzea barne hartuta.

Izan gardenak

- Sinatu Gardentasun Akordioa ahal bezain laster eta ezagutarazi datuak ordenagailuz irakur daitezkeen hornitzaileen zerrendetan. Zerrenda horiek fabrika bakoitzeko plantillako langile migratzaileen generoaren eta proportzioaren arabera banakatu behar dira, eta sindikaturik edo langileen batzorderik ote dagoen adierazi ere bai.
- Zabaldurik herrialde bakoitzeko hornitzaile bakoitzak lan-aste oso batean ordaintzen duen soldatarik txikiena, aparteko orduak, etekinak eta hobariak kontuan hartu gabe.
- Argitaratu urteko auditoria sozialen txostenak.

Ordaindu langileei soldata duina

- Hartu konpromisoa soldata duinen eta gardenen erreferentziak erabiltzeko.
- Hartu konpromisoa soldata duinaren kuota bat ordaintzeko egiten duzuen eskaera bakoitzean, hornidura-kateetako soldata-arrakala kentzeko adina.
- Hartu konpromisoa hornidura-kateetako gizon eta emakume langileen arteko soldata-arrakala murrizteko.

- Ziurtatu eta erraztu Covidaren krisian zehar hornidura-katean kontratatu ziren plantillako kide guztiek (jornaleroek, etxean lan egiten duten langileek eta aldi baterako langileek barne) beren soldatak osorik jasotzea edo, bestela, fabrika ixtea, egoki diren kalte-ordainekin.

Legegileentzat

EB-ren esparruan: Eskatu derrigorrezko gardentasuna eta eginbide zuzenak giza eskubideekin lotuta

- Garatu EBaren lege lotesle bat hornitzaileen zerrenda zabaltzeko. Horrek ordenagailuz irakurgarria den informazioa jaso beharko luke ekoizpen-unitateei eta prozesatze-instalazioei buruz, bai eta negozioaren izena, helbidea, sozietate nagusia, ekoiztiko produktu motak eta fabrika bakoitzeko langile-kopurua.
- Bultzatu derrigorrezko eginbide zuzenak tartean hartzen dituen legegintza nazio-mailan eta EBan, enpresek nahitaez errespetatu ditzaten giza eskubideak beren jardunetan eta hornidura-kateetan, bereziki, emakumeenak. Derrigorrezko eginbide zuzenen prozesu hori osoa izango da eta eginbide zuzenen metodologia espezifikoa izango du genero-ikuspegiari dagokionez.

EBean eta herrialde ekoizleetan: Eskatu soldata duinak eta indarkeriarik gabeko lantokiak

- Ziurtatu gutxieneko soldatak soldata duinaren nazioarteko estandarrei helduta finkatzen direla herrialde ekoizleetan (EBan ere bai) eta politiketan eta akordioetan gardentasun-adierazleak gehitzen direla.
- Berretsi indarkeriari eta jazarpenari buruzko LANEren 190. hitzarmena eta ezarri eranskinean jaso den 206. gomendioa.
- Sendotu genero-indarkeriari buruzko legeak eta bermatu betetzen direla. Egin legeria osoa genero-indarkeriari buruz, lantokiaz haratago doana.
- Eman lege-asistentzia eta asistentzia medikoa biktimei.
- Eman baimena egoki diren ikuskaritza-agintaritzei eta monitorizatzeko-erakundeei, lantokietako genero-indarkeriaren arazoan jarraipena hobeto egiteko.

Fabriketako arduradunentzat

Heldu genero-indarkeriari eta soldaten arazoei prezioen negoziazioan

- Aitortu genero-indarkeria dagoela eta haren nagusitasuna.
- Egin lantokian genero-indarkeria saihesteko politika bat, plantilla babesten duena, piztu salaketak egitea eta bermatu: a) batzorde horiek ez dituztela sindikatuak

ordezkutzen; b) batzordeak eta sindikatuak gai direla askatasunez aritzeko, zuzendaritzak esku hartu gabe.

- Sortu «jazarpenik gabeko fabrikak» eta nabarmendu alderdi positibo gisa, erosleak erakartzeko.
- Ezarri jazarpenaren aurkako batzordeak fabrika bakoitzean hautatutako kidez osatuta, kanpoko genero-aditu bat eta langileen ordezkariak dituen.
- Lagundu batzorde horien funtzionamenduari (ohiko bilerak lan-ordutegian).
- Erraztu plantillarentzako prestakuntza, batzordeen eta fabriketako sindikatuen rola eta erantzukizunak azaltzeko (adibidez, parte hartzeari, segurtasunari, laguntzei eta jazarpenari aurka egiteari buruz).
- Erraztu laguntza legala eta osasun-asistentzia biktimei.
- Ezarri fabrikaren barruan erreklamazioak konfiantzaz egiteko sistema bat, kanpoko laguntzaileekin batera.
- Erosleekin, heldu eskakizunen prezio zuzenak finkatzeko beharrari, fabrikak soldata duina ordaindu diezaien langileei.

Bibliografia

Anner, Mark (2019): Erosketa-jardun harrapatzaileak jantzigintzaren industriaren munduko hornidura-kateetan: urduritasuna Indiako lan-harremanetan. *Revista internacional del Trabajo* 138(4), 761-787.

Bangladesh Bureau of Statistics (BBS) (2015): *Report on Violence Against Women (VAW) Survey 2015* [Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko txostena, 2015eko inkesta]. URL: <https://evaw-global-database.unwomen.org/-/media/files/un%20women/vaw/vaw%20survey/bangladesh%20vaw%20survey%202015.pdf?vs=2125>

BCWS, FEMNET (2020): *Stop the Violence - Break the Silence. Gender-based violence in the garment sector of Bangladesh: A study on cases, causes and cures* [Eten dezagun indarkeria; hautsi dezagun isiltasuna. Indarkeria sexista Bangladeshko ehungintzaren sektorean: Kasuen, kausen eta sendabideen azterketa]. URL: https://femnet.de/images/downloads/gbv/GBV_Stop-Violence_Report_BCWS-FEMNET-2020.pdf

Better Work (2019): *Sexual harassment at work: Insights from the global garment industry* [Sexu-jazarpena lanean: munduko ehungintzaren industriaren ikuspegiak].

Dhaka Tribune (2019): *Study: Only 4% garment factories have anti-harassment committee* [Ikerketa: soilik ehun-fabriken %4ek dituzte jazarpenaren aurkako batzordeak]. URL:

<https://www.dhakatribune.com/business/2019/04/29/study-only-4-garment-factories-have-anti-harassment-committee>

CARE/IRC (2020): *Global Rapid Gender Analysis for COVID-19* [Generoren munduko analisi azkarra Covid-19an zehar], URL: <https://www.rescue.org/sites/default/files/document/4676/globalrgacovidrdm33120final.pdf>

Clean Clothes Campaign (2020): *UN(DER)PAID IN THE PANDEMIC - An estimate of what the garment industry owes its workers* [Txarto ordainduta pandemian zehar: Ehungintzaren industriak langileei zor dienaren estimazioa]. URL: https://www.publiceye.ch/fileadmin/doc/Mode/2020_CCC_Underpaid_in_the_pandemic_Report.pdf

Fair Wear Foundation (FWF) (2015): *Setting up Anti-harassment committees and violence prevention systems. The experience of Fair Wear Foundation. Evaluation Report to the UN Trust Fund to End Violence against Women* [Jazarpenaren aurkako batzordeak eta indarkeria saihesteko sistemak ezartzea. Fair Wear Foundation-en esperientzia. NBERen Funts Fiduziarioaren ebaluazioaren txostena Emakumearen aurkako Indarkeria desagiteko].

Fair Wear Foundation (FWF) (2018a): *Breaking the Silence: The FWF Violence and Harassment Prevention Programme* [Isiltasuna hautsi: indarkeria eta jazarpena saihesteko FWF-ren programa].

Fair Wear Foundation (FWF) (2018b): *Violence and Harassment against Women and Men in the Global Garment Supply Chain* [Indarkeria eta jazarpena ehungintzaren industriaren hornidura-kate globaletakoa emakumeen eta gizonen aurka].

Farole, Thomas, Yoonyoung Cho, Laurent Bossavie, and Reyes Aterido (2017): *Bangladesh Jobs Diagnostic. Jobs working paper 9. Washington, D.C.: World Bank Group* [Bangladeshko lanpostuen diagnostikoa].

Global Labor Justice and Asia Floor Wage Alliance (GLJ, AFWA) (2019): *End Gender Based Violence and Harassment - Gender Justice on Garment Global Supply Chains: An Agenda to transform Fast-Fashion* [Amaitu dezagun genero-indarkeriarekin eta jazarpenarekin- Genero-justizia ehungintzaren industriaren hornidura-kateetan: Moda azkarra eraldatzeko agenda].

International Labour Organization (ILO)(2011): C190 - Indarkeriari eta jazarpenari buruzko hitzarmena, 2019 (190. alea), URL: https://www.ilo.org/dyn/normlex/es/f?p=NORMLEXPUB:12100:0::NO::P12100_INSTRUMENT_ID,P12100_LANG_CODE:3999810,es

Luginbühl, Christa (2019): *Jasoko al dute soldata duinik emakume langileek? Ehunkien eta oinetakoen munduko industriaren hornidura-kateen erreferentziazko soldata duina genero-ikuspegitik. Arropa Garbia Kanpaina eta Public Eye.* URL: <https://ropalimpia.org/recursos/se-beneficiarian-las-mujeres-trabajadoras-del-salario-digno->

[el-salario-digno-de-referencia-en-las-cadenas-de-suministro-de-la-industria-global-textil-y-del-calzado-desde-una-perspectiva-de-gene/](#)

Patty Alleman, Laura Rumble (2020): *Gender equality during COVID-19* [Genero-berdintasuna Covid-19-an zehar], UNICEF. URL: <https://www.unicef.org/rosa/stories/gender-equality-during-covid-19>

UN Women (2020): *El brote de COVID-19 y género: puntos clave de abogacía de Asia y el Pacífico* [Covid-19 agertzea eta generoa: abokatutzaren gakoak Asian eta Ozeano Barean]. URL: <https://gbvaor.net/sites/default/files/2020-03/COVID%2019%20y%20G%C3%A9nero%20Puntos%20de%20Incidencia.pdf>.